



Egilea / El autor

Xabier Etxaniz Rojo (Trintxerpe 1971). Bere literatura ibilbidean ipuingintza da gehien jorratu duen generoa. Bost ipuin bilduma argitaratu ditu: *Begiak itxi eta kitto* (2000), *Hamar manamenduak* (2002), *Nork bere ozeanoa* (2006), *Txatartegirako ipuinak* (2010) eta *Sirena-hotsak* (2013).

Ipuingintzaz gain, beste genero batzuk ere jorratu ditu, hala nola kronika *Ekialdetik iritsi zen Enara: nazioarteko adopzio baten istorioa* (2008) eta eleberria *Koadro isila* (2003, Donostia Opera Prima saria) eta *Waterloo-n galdutakoak* (2016). Hainbat urtez zutabegile aritu zen *Berrian*, *Irutxuloko Hitzan* eta *Aizu* aldizkarian.

1993az geroztik, AEKn dabil irakasle lanetan.

Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Denok gara Google**

Egilea / Autor: **Xabier Etxaniz Rojo**

Saila / Colección: Narratiba, 116

ISBN / EAN: 978-84-9109-445-6

Salneurria / Precio: 16 € (BEZ barne – IVA incluído)

Orri kopurua / N° páginas: 176

Formatua / Formato: Rustika / Rústica - 15 x 22 cm

Materia: Helduentzako literatura - Literatura adultos



Lana / La obra

Eleberri honetako protagonistak bila dabilta. Horietako bat eguzki-lore baten azpian ezkututzen den emakume baten bila dabil; beste bat, berriz, iraganeko mamu baten peskizan ari da. Badakite zer bilatu nahi duten. Ez dakite nola. Badakite zer bilatu nahi duten, zer topatuko duten ez dakite ordea.

Bilaketak. Bizitza osoa ematen dugu bilatzen: zoriontasuna, maitasuna, dirua, ospea, sexua, arrakasta, lana, ongizatea, egia... Denok bilatzen dugu zerbait, eta bila genbiltzan hori topatzen dugunean, bilaketa berriak egiten hasten gara.

Batzuetan hobea izaten da bilatzen duzun hori ez topatzea. Bai baitago ez jakitea baino gauza latzagorik.

–Maite dozu maitalea?

–Bai, izugarri.

–Eta bikotekidea, maite al dozu?

–Bai, izugarri.

–Bi pertsona itzel maitatzea posible da, ala?

–Ez dakit posible den baina nik egiten dut.

–Nik esandako guztiak gogoratzen dozuz?

–Ez, soilik interesatzen zaidana. Bestea erresetean egiten dut.

–Inigo.

–Zer?

–Zergatik kontatu deustazu hori guztia?"